

ELA

OSAKIDETZA

LPE - 2008

AZTERKETA EUSKARAZ EGITEA HAUTATU ZUTENEI: BERDINTASUN-ESKUBIDEA URRATU !

Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Erabakiak —Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuen **oinarri orokorrak** onetsi dituenak— bere 9.6 puntuan, hauxe dauka ezarrita: **“Oposizio-aldia egiteko hizkuntza ofiziala hautatzea: hautagaiek eskabide-inprimakian markatu behar dute zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten oposizio-aldiko probak, eta aukera hori loteslea izango da”**.

Beraz, EUSKARAZ egiteko aukerari atxiki zioten hautagaiek, baldin eta galdera-sorta itxia duten kategorietan (berariazko oinarrien arabera) aurkezten badira, EUSKARAZ jaso behar dituzte galdera-sortak.

Bada, Osakidetzak funtsezko BERDINTASUN printzipioa urratu du, zeren euskarazko galdera-sortak beranduago banatu baitira, erdarazkoak baino; eta banatu direnean, itzulpen-akats eta huts ugari aurkitu ziren.

Hori dela-eta, kexa, salaketa eta erreklamazio asko aurkeztu dira. Baina oposizio-egile horiei eragindako kaltea eginda dago.

Arazo hori konpontze aldera Osakidetzari ez zaio besterik begitandu GAZTELANIAZ EGITEA PROPOSATZEA baino. Hainbeste egunetan bueltaka pentsatzen ibili ondoren, ederra burutazioa! Ez ziren nekatuko. Gure ustez, neurri hori EZ da egokia oposizio-egile horien BERDINTASUN-eskubidea bermatzeko.

ELarentzat txarra izan da Osakidetzaren erantzuna, ez baitu ziurtatu oposizio-egileek azterketak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko duten eskubidea.

KONTRAESAN nabaria dago, sektorea euskalduntzeko politikaren euskalduntze-planen eta gertakarien artean.

Sindikatu honek ateratzen duen ONDORIOA zera da: OSAKIDETZAK euskalduntzen du “ahotxikiarekin”. Baina haren euskalduntze-planetan hutsune handi bat dago: INBERTSIO gutxiegia. Egiten duen inbertsioaz ezin dira langile finkoak eta behin-behinekoak euskaldundu. Eta defizit hori sarritan salatu du sindikatu honek.

Oraingo honetan ere EUSKARA, eta erabiltzen dugunok, atera gara galduan.

ARGIBIDE GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO, GALDETU ZURE ATAL SINDIKALEAN, ELAREN EGOITZA NAGUSIETAN, EDO BESTELA BEGIRATU GURE WEB ORRIAN: www.ela-sindikatua.org